

# Naizena izanez garena



## DOINU MIXA

### I. AZALAK MEMORIA DU

JAIOTZEAN GENEETAN  
IXA IXA BADITUZU  
BI AUKERETAN BAKARRA  
EGOKITU OMEN ZAIZU  
ALAZNE, NAGORE, MAITE  
IZENAK IZANA MAISU  
ANAIK, AMONA, AHIZPA  
AITA ONDO ZAINDU ITZAZU  
IZAN ZAITEA TXINTXOA  
GAUEZ EZ IBILI AIZU  
MUTIL EZEZAGUNEKIN  
EZ JOAN INORA, KASU!  
BI IXAK JARRAIAN NOIZTIK  
EGITEN DU ENBARAZU?  
ZERGATIK ERAIKITZEN DA  
HAINBESTE BELDUR TA IZU!

### III. DENA ALDATZEN DA

MENOPAUSIA, KLIMATERIO,  
ADINAK DAKAR LISTARRA  
HORMONA DANTZA GALANTA  
MALA OSTIA TA NEGARRA  
UGALKORTASUN GALDUA  
ERAUZI TA ISILDUA  
EZIN IKUSIZKO GARA  
EMAKUME EZEREZTUA

*DENA ALDATZEN DA  
DENA ALDATZEN DA (BER)*

MATRAILAK GORRI GORRIAK  
EDERTASUN UKATUA  
AZALAK ERORI DIRA  
ALUA DA SIKATUA  
MINA GORPUTZ ETA ARIMAN  
ABANIKOA ESKUAN  
LO EGIN EZINIK ORDUAK  
BETIEREKO NEGUAN  
*DENA ALDATZEN DA..*

### II. ITSASOARI BEGIRA

MAITASUN GABE EMAKUME BAT  
DENEZ HUTSAREN HURRENA  
NIRE PRINTZIPE URDINA ZARA  
OSAGARRITZEN NAUENA  
ZU GABE EZER EZ NAIZ IZANGO  
EMANGO DIZUT ONENA  
ZORIONTASUN IZAR ARTEAN  
SENARRARENA AURRENA  
AZKEN ARNASA EMAN NAHI NUKE  
NAIZELA IZANEZ GARENA

### IV. BUBO MAGNIPETASI

BIZI OSOA ZAINTZEN  
BAZUN BALIOA  
ZERGAK ORDAINDU EZ ETA  
KRISTON PRESIOA  
MISERI GORRIA DA  
GURETZAT GEROA  
ZAINZTA BEHAR DENEAN  
HASTEN DA ARAZOA  
MIXERI GORRIA DA  
GURETZAT GEROA  
BIZIRAUTEA OTE  
DA ZAHARTZAROA

HIRU EGUN ZERAMAN  
HILIK BERE ETXEAN  
ESATARIAK ZION  
GOIZEKO ALBISTEAN  
MUNDUAK AHAZTUTA  
ZEUKAN BAPATEAN  
EMANKORRA IZATETIK  
UTZI ZUENEAN  
MUNDUAK AHAZTUTA  
ZEUKAN BAPATEAN  
DUINTASUNIK EZ DA  
HORRELA HILTZEAN